

Entseguen egutegi/ordutegia egunak:

- Urtarrilaren 7 eta 15 arratsaldeko 19.30 etatik 21.00 etara.

Urtarrilaren 7an danborrak eta kupelak banatuko dira eta 15ean hurrekin egingo dugu urtero bezela entsegua.

- Urtarrilaren 9 eta 16 arratsaldeko 20.00 etatik 21.00 etara.

Entsegu orokorra Urtarrilak 11 (larunbata) Entsegu Orokorra Bandarekin 16.00 etan. Entsegu orokorran parte hartzea **DERRIGORREZKOA** izango da, bertan lerroak osatuko ditugulako Danborrada egunean aterako garen modura.

Aurten **DERRIGORREZKOA IZANGO DA GUTXIENEZ 3 ENTSEGUTAN PARTE HARTZEA** (Entsegu orokorra kontutan izan gabe). Badakigu salbuespenak egon daitezkeela eta kontutan izango ditugu.

Jantziak:

Abenduak 10, asteartea 19:30etatik 20:30etara Hurrako jangelan. Izena jarria daukazuenak etorri zuena jasotzera, bestela behar duenari utzi beharko diogu. Ezin bazerate etorri, bidali norbait jasotzera. Aurten jantziak egun bakar batean banatu eta jasoko ditugu.

Jantziak bueltatzeko: URTARRILAK 30 osteguna 19:30etatik 20:30etara Hurrako jangelan. Hurrengo urtean ateratzeko asmoa daukazuenak, jarri zuen izena jantzian.

Jantziak GARBIAK entregatu behar dira. Soldaduen Kasaka eta Polainak TINDATEGIAN garbitu behar dira.

Kupelak: Kupelak zapia eta ikastolako logoaren bordatua jaso behar duzue. Zapiak 3€ balio ditu, bordatuak ezer ez. Ez da bueltatu behar.

Kuota:

Aurten kuota 40 € izaten jarraituko du, diru sarrera egiteko kontu korrante zenbakia 2095 5206 05 1064345969 (KUTXA). Mesedez diru sarrera egiterako garaian **IZEN ETA 2 ABIZENAK** adierazi. **DIRU SARRERA EGITEKO AZKEN EGUNA ABENDUAK 8, IGANDEA**. Danborradako partaide zerrendan egon ahal izateko beharrezkoa izango da diru sarrera eginda izatea.

Edozein zalantzarik edo iradokizunik izatekotan helduendanborrada@zurriolaikastola.net, posta elektronikoa daukazue.

Danborrak eta Kupelak:

Banatu: lehen entsegu egunean danborrak eta kupelak banatuko dira gerriko eta makilekin batera. Bakoitzak bere materiala ekarri beharko du entseguetara.

Jaso: Urtarrilak 20, danborrada bukatzen dugunean Hurrako egoitzan. Danbor eta kupel bakoitza bere lekuan utziko dugu. Makilak eta gerrikoak ere.